



Milurteko berriaren hasiera honetan, errealitate sozialaren behatzaile batek atera ahalko lukeen ondorioetako bat zera litzateke, enpresaren eta gizartearen arteko harremanen gaia hiru gai nagusietako bat bihurtu dela ekonomiarrien, zientzialarien, politikarien eta gizarte-eragileen lan-agendetan (beste bi gai nagusiak globalizazioa eta haren ondorioak, eta aldaketa klimatikoa dira, zalantzarik gabe).

---

«Munduan ez da  
ezer bere garaia  
iritsi zaion  
ideia bezain  
boteretsurik»  
Victor Hugo

---

Ikuspegi orokor batetik begiratuta, gogoraraztekoa da 1999an bota zuela jada Koffi Annan-ek Davor-en enpresa-komunitateari zuzenduriko Itun Mundialerako bere proposamena, eta bi urte geroago Europako Batzordeak bere liburu berdea argitaratu zuela, Nazio Batuen idazkari nagusiak botatako erronkari erantzunez: enpresaren erantzukizun sozialerako europar esparrua sustatzea (aurrerantzean EES sigla ere erabiliko dugu, aukeran).

Denbora gutxian, komunitate enpresarial eta zientifikoak hiru termino darabiltza hitzetik hortzera enpresaren eta gizartearen arteko harreman horiek berriz definitzeko: EESa, iraunkortasuna eta *stakeholder* (enpresaren inguruko interes-taldeak).

Elkarren artean estu loturiko hiru kontzeptu horiei dagokienez, agian arrazoa izango du *The Economist* aldizkariak 2005eko azterlan batean EESak ideien bataila irabazi zuela adierazi ondoren; eta, izan ere, EESari berari buruzko unibertsalki onarturiko definizioak gabe irabazi du bataila hori Enpresaren Erantzukizun Sozialak, paradoxikoa bada ere.

EESa, iraunkortasuna eta *stakeholder* terminoen bidez, besteak beste, hainbat gai buruzko eztabaida zabaltzen da, hala nola enpresak bete beharreko egitekoa zein den, zein eginkizun, helburu eta ekarpen duen gizartearekiko, eta, azken batean, zein ekarpen egiten duen egiaz humanoa den bizitzaren luzarokortasunerako.

### **Akziodunen zerbitzurako enpresaren ingurune berria edo «enpresa herritarra»**

---

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan gorakada teoriko eta praktikoa izan zuen enpresaren finantza- edo akzio-ereduak, azterketa ekonomikoa konbikzio ideologiko neoliberal sendoekin uztartuta. Berriz ere ideia zahar bat indarberritu zen, hots, negozio pribatuek bizitza publikotik aparte egon behar zutela, horrexegatik baitziren «pribatuak». Gauzak horrela, enpresaren gobernuak «akziodunen errepublika» bati zegokion gobernutzat hartu zen, harreman-bide garrantzitsu bakarrarekin: akziodunak eta enpresaren zuzendariak. Testuinguru horretan, akziodunak («nagusiak») subiranoak dira eta erabakitzeke erabateko ahalmena eduki behar dute; konpainietako zuzendariak («agenteak») haien zerbitzura egon behar dute, eta agente horiek al bait balio gehien sortzeko betebeharrak fiduziariora dute, betiere

Al alba del nuevo milenio un observador de la realidad social, podría concluir que, la redefinición de las relaciones entre empresa y sociedad se ha convertido en uno de los tres grandes temas de las agendas de trabajo de economistas, científicos, políticos y actores sociales (los otros son indudablemente la globalización y sus efectos, y el cambio climático).

Desde una perspectiva global, hay que recordar que ya en 1999 Koffi Annan lanzó en Davor su propuesta del Pacto Mundial dirigido a la comunidad empresarial, y que dos años después la Comisión Europea recogiendo el guante lanzado por el Secretario General de las Naciones Unidas publicó su libro verde: fomentar un marco europeo para la responsabilidad social de la empresa (en adelante RSE).

---

«No existe en el  
mundo nada tan  
poderoso como una  
idea a la que ha  
llegado su tiempo»  
Victor Hugo

---

En poco tiempo tres términos están en boca de la comunidad empresarial y científica a la hora de expresar esa redefinición de las relaciones entre empresa y sociedad: RSE, sostenibilidad y *stakeholder* (grupos de interés en torno a la empresa).

De estos tres conceptos, estrechamente relacionados, probablemente tiene razón *The Economist* cuando en su estudio de 2005 afirma que la RSE ha ganado la batalla de las ideas; y la ha ganado sin que, paradójicamente, exista una definición universalmente aceptada de la RSE.

Mediante términos como RSE, sostenibilidad y *stakeholder*, lo que se discute, en definitiva, es cuál es el papel a desempeñar por la empresa, cuál es su función, su propósito y su contribución a la sociedad, en definitiva, su aportación a la perdurabilidad de una vida auténticamente humana.

### **El nuevo entorno de la empresa al servicio de los accionistas o la «empresa ciudadana»**

---

Durante las décadas de los setenta y ochenta se asistió a un importante resurgir teórico y práctico del modelo financiero o accionarial de la empresa, combinando el análisis económico con las fuertes convicciones ideológicas neoliberales. De nuevo se puso en un primer plano la vieja idea de que los negocios privados deberían estar al margen del escrutinio público, precisamente por llamarse «privados». Así, el gobierno de la empresa se entendió como el propio de una «república de accionistas», con una única relación de agencia relevante: accionistas frente a directivos de la empresa. En este contexto, los accionistas («principales») son soberanos y deben contar en último término con pleno poder decisorio; a su exclusivo servicio han de estar los directivos de las compañías («agentes»), quienes tienen como obli-

nagusien mesedetan. Nahikoa zen «gobernu on» bat izatea, hots, ildo horri jarraitzen zion konpainien gobernu bat, guztien ongizaterako ekarpen erabakigarria egiteko. Aldi berean, egindakotzat eman zen konpainiek beren erantzukizun kolektiboak sobera betetzen zituztela beren zergak ordaintzean eta abar, hau da, beren legezko erantzukizunak zorrotz betetzerakoan.

Dena den, EESarenganako kezka indarberritu egin da laurogeita hamarreko hamarkadan eta hurrengo urteetan. Izan ere, esperientziak hiru gauza frogatu ditu. Lehenik, zenbait zuzendarik eginiko gehiegikeriak konpainien baliabideak iruzurrez erabilia. Izan ere, froga empirikoek erakusten digute zenbaitetan «gobernu korporatibo onaren» mekanismoak baliatu dituztela beren mesedetan. Bigarrenik, sarritan konpainiek aplikaturiko negozio-estrategien «finantziarizazioaren» lekuko izan gara. Sarritan, enpresek beren estrategiak berbiderratu egin dituzte akziodunentzat balioa laster batean sortzeko, epe laburreko balioa bazen ere, eta epe luzera, aldiz, erakunde osoaren interesekiko itsutasun handiz jokatu. Hirugarrenik, kasu batean baino gehiagotan kostu ez-monetario ugari-barrukoak zein kanpokoak-ahaztuta utzi dira estrategia korporatibo baten kostu eta mozkinen balantzea egiterakoan.

Eta hori guztia une jakin batean ari da gertatzen, hots, iritzi publikoak eta erakunde edo mugimendu sozialak, antza, beren kezka agertzen hasi direnean enpresetako finantza- eta kontabilitate-eskandaluengatik, narriadura ekologikoarengatik, gizarte-bazterkeriarengatik, giza eskubi-deekiko errespetu-faltarengatik eta, azken batean, garapen iraunkorra

lortzeko eta «munduko ondasun erkideak (publikoak)» zaintzeko zailtasunengatik.

Horrez gain, eta hainbat hamarkadatan gertatu ez bezala, mundu akademikoak, politika publikoek eta enpresa-zuzendariak gehiago erreparatzen diete Estatuak esku-hartze agente gisa egindako akatsei merkatuek baliabideak esleitzeko eta errenta banatzeko tresna gisa eginiko akatsei baino. Dena den, argi ikusi beharko litzateke zenbat eta askatasun handiagoa izan erantzukizuna ere handiagoa dela. Barne-produktu gordinaren proportzio handiagoren kudeaketa pribatua defendatzen bada, hau da, erabaki autonomo eta deszentralizatuen bidez eta ez erabaki estatal eta zentralizatuen bidez, partaidetza pribatuak –eta zehazki enpresarialak– indartsuagoa behar du izan erantzukizun kolektiboetan.

Horrenbestez, uztartu egin behar dira gaur egun oraindik ere nagusi diren joera liberalizatzaile eta desarautzaileak kohesio soziala atxikitzeko eta are

gación fiduciaria procurar la máxima creación posible de valor en beneficio de los primeros. Bastaba un «buen gobierno», es decir, un gobierno de las empresas en esa línea, para contribuir decisivamente al bienestar general. A la vez, se dio por supuesto que las compañías cumplían de sobra con sus responsabilidades colectivas al pagar sus impuestos, etc., es decir, al cumplir estrictamente con sus responsabilidades legales.

Sin embargo, la década de los noventa y los años siguientes han recuperado la preocupación por la RSE. Y es que la experiencia ha demostrado tres cosas. Primero, los abusos de algunos ejecutivos en la utilización fraudulenta de los recursos de las compañías. De hecho, tenemos evidencia empírica de que a veces han aprovechado los nuevos mecanismos de «buen gobierno corporativo» para su beneficio personal. Segundo, con frecuencia hemos asistido a una «financiarización» de las estrategias de negocio aplicadas por las compañías. A menudo, las empresas han reorientado sus estrategias con el fin de crear valor de forma rápida para los accionistas, aunque sólo fuese a corto plazo, y con gran miopía respecto a los intereses del conjunto de la organización a largo plazo. Tercero, en no pocos casos se han olvidado muchos costes no monetarios, internos y externos, a la hora de hacer balance de los costes y beneficios de una estrategia corporativa.

Justamente, todo esto acontece en un momento en el cual la opinión pública y las organizaciones o movimientos sociales parecen mostrar inquietud ante los escándalos financieros y contables en las empresas, el deterioro ecológico, la exclusión social, la falta de respeto a los derechos humanos y, en definitiva, las dificultades para lograr un desarrollo sostenible y preservar los «bienes comunes (públicos) mundiales».

Además, y a diferencia de lo que ocurrió durante décadas, el mundo académico, las políticas públicas y los dirigentes empresariales parecen fijarse más en los fallos del Estado como agente de intervención que en los fallos del mercado como instrumento de asignación de recursos y distribución de la renta. Ahora bien, se debería caer en la cuenta de que, a mayor libertad, mayor responsabilidad. Si se defienda la gestión privada de una proporción superior del PIB, esto es, mediante decisiones autónomas y descentralizadas en vez de estatales y centralizadas, habrá de esperarse una más intensa participación privada-y, en concreto, empresarial-en las responsabilidades colectivas.

Estamos, por tanto, ante la necesidad de compaginar las tendencias liberalizadoras y desreguladoras,

---

**Aldo Oceste-k, Zientzia Ekonomiko eta Finantzarioen Errege Akademiako kideak, azterlan handi bat (800 orrialde) zuzendu du Enpresaren Erantzukizun Sozialaren etorkizunari buruz. Irakasgai berri bat proposatzen du; enpresa arduratsu eta iraunkorraren ekonomia izango luke izena, eta irakasgai ardatza beharko luke izan ekonomia-zientzietako fakultateetan**

---

---

**Aldo Oceste, miembro de la Real Academia de Ciencias Económicas y Financieras ha dirigido un estudio monumental, 800 páginas, sobre el futuro de la RSE. Propone una asignatura nueva que se llamará economía de la empresa responsable y sostenible, que debería ser troncal en las facultades de ciencias económicas**

---

handitzeko eskakizunarekin, Estatuak hainbat esparru ekonomiko eta sozialetan duen esku-hartze txikiagoak enpresa-politikek herritarren bizitzan eragin handiagoa izatea ahalbidetu duen unean. Herritarrek merkataritza-erakundeei begiratzen diete orain, eta erantzukizuna eta gardentasuna eskatzen diete. Horrenbestez, zuzendaritza estrategiko korporatiboa konfiantza sortzeko eta gizartearen aurrean legitimatzeko premia jabetuta dago, eta aldi berean beste zenbait arazo konplexuri aurre egiten die, hots, nor diren eta harremanak nola izan zenbait partaiderekin, interes-taldeekin edo enpresetako *stakeholder*ekin (akziodunak, zuzendariak, langileak, hartzekodunak, bezeroak, hornitzaileak, tokiko komunitatea, gizartea eta ingurumena.).

Enpresa-gizarte harreman horien berregituratzea ez da soilik politika publikoen desarautzearen eta berdefinizioaren ondorio, eta telekomunikazioetan izandako aurrerapenen eta globalizazioaren ondorio ere bada. Dena den, ez dirudi globalizazio horren dinamikak nahitaez erabateko homogeneizaziora garamatzanik. Izan ere, mugaz gaindikoak besterik ez diren edo are azpinazionalak diren esparru ekonomikoekin batera txertatuta dago geografia ekonomiko plurinazionala, eta behin baino gehiagotan estatu-arlokoak ez diren nortasun politiko-territorial edo sozio-erlijiosoen indartzearekin uztartuta.

Kontsumitzaileen posizioa hobetu egin da esparru horretan. Informazio-iturri asko eta ondasun- eta zerbitzu-hornitzaile ugari laster eta erraz baliatzearen emaitza da hori. Izen onak, irudiak, lan-giroak, bezeroen leialtasunak, «marka» baten prestigioak, hornitzaileen sare baten konfiantzak, azken batean, enpresaren nortasunak enpresaren beraren garrantzia indartzen dute produktuen prezioa-kalitatea-prestazioak erlazioa egungo esparru globalizatuan ebaluatzeko eta bereizteko zailagoa egiten den neurrian.

Bestalde, mundu globalizatu honetan, lehiakortasuna handitu egin da eta ekoizpen-prozesuak berritzeko eta ondasun eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko premia indartu. Talentua eta partekatzen eta biderkatzen den jakintza duten langileak eskatzen ditu horrek. Informazio-sareak funtsezko elementu bihurtzen dira lehiakortasunerako. Enpresa «desmaterializatua» da. Konglomeratu korporatibo handien ordez oso tamaina handikoak ez diren erakundeak sortzen dira, eta gaitasun-maila handiko profesionalen lana nola erraztu eta indartu behar den bihurtzen da funtsezko kezka erakunde horietan, eta profesional horiek ere funtsezko eta etengabeko harremanak atxikitzen dituzte antzeko beste zenbait erakunderekin. Gauzak horrela, garrantzi erabakigarria hartzen dute motibazioak eta arazoak identifikatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunak.

Azkenik, tarteko ondasunen merkatuen lehiakortasun handiagoak murriztu egin du konpainien integrazio bertikaleko mailarengatik interesa: alde batera utzi da hornitzaileen zuzeneko kontrola, eta

todavía hoy predominantes, con el requisito de mantener e incluso aumentar la cohesión social, en un momento en el que la menor intervención del Estado en muy diversos campos económicos y sociales ha dejado paso a un mayor impacto e influencia de las políticas empresariales sobre la vida de los ciudadanos. Éstos vuelven sus ojos hacia las organizaciones mercantiles y les exigen responsabilidad y transparencia. Por tanto, la dirección estratégica corporativa percibe la urgencia de generar confianza y legitimarse ante la sociedad, a la vez que afronta complejos problemas de quiénes son y cómo relacionarse con los diversos partícipes, grupos de interés o *stakeholders* empresariales (accionistas, directivos, empleados, acreedores, clientes, proveedores, comunidad local, sociedad y medioambiente.).

Esta reestructuración de las relaciones empresa-sociedad no sólo deriva de la desregulación y la redefinición de las políticas públicas, sino también de los avances en las telecomunicaciones y la globalización. Eso sí, la dinámica de esta globalización no parece conducir necesariamente a una completa homogeneización. De hecho, una geografía económica plurinacional coexiste con espacios económicos simplemente transfronterizos e incluso subnacionales; y no pocas veces en conjunción con el reforzamiento de las identidades político-territoriales o socio-religiosas de ámbito no estatal.

En dicho marco, ha mejorado la posición de los consumidores. Es el resultado de un acceso rápido y fácil a gran variedad de fuentes de información y a multitud de suministradores de bienes y servicios. La reputación, la imagen, el clima laboral, la lealtad de los clientes, el prestigio de una «marca», la confianza de una red de proveedores, en fin, la identidad de la empresa refuerza su importancia a medida que la relación precio-calidad-prestaciones de los productos llega a ser más difícil de evaluar y diferenciar en el actual marco económico globalizado.

Por otro lado, en un mundo globalizado, aumenta la competencia y se refuerza la necesidad de innovar los procesos de producción y mejorar la calidad de los bienes y servicios. Esto exige empleados con talento y un saber que se comparta y multiplique. Las redes de información pasan a ser elemento clave para la competitividad. Es la empresa «desmaterializada». En vez de grandes conglomerados corporativos, emergen organizaciones de no muy elevado tamaño, en las cuales la preocupación clave comienza a ser cómo facilitar y potenciar el trabajo de profesionales altamente capacitados, los cuales a su vez mantienen relaciones cruciales y continuas con otras organizaciones similares. Así, la motivación y la capacidad para identificar problemas y adoptar decisiones adquieren una importancia decisiva.

Por último, la mayor competencia en los mercados de bienes intermedios ha socavado el interés por el grado de integración vertical de las

horren zurrinak ez diren lankidetzak moduak ezarri dira horren ordez. Edozein motatako harremanen kudeaketak garrantzi handia hartzen du. Enpresen arteko mugak ezabatu egiten dira, mundu osoan banaturiko hornitzaileen kate luzeak, aliantza estrategikoak, denborazko akordioak eta abar dituzten sareko erakundeak sortzen diren neurrian. Nolabait esanda, enpresek ez dute jada «egitura lokalizatu» bat, beste batzuekin batera eta elkarri eraginda lan egiten baitute, lankidetzak eta lehia-esparru batean, non konfiantza, negozioen etika eta harremanen erlazioa diren faktore esanguratsuak.

Enpresen ingurune sozial eta ekonomikoko aldaketa horiek erronka handiak planteatzen dituzte enpresak gobernatzeko, eta ingurune horretako funtsezko elementuak hartzen dituzte eraginpean: pizgarriak interes-taldeek inbertsio espezifikoak egin ditzaten, sorturiko guztizko balio garbiaren kalkulu-sistemak, arriskuak eta emaitzak banatzeko mekanismoak, interes-taldeen parte-hartzea artikulatzeko egiturak eta tresna instituzionalak zuzendarien portaera bideratu eta haien ordainsariak ezartzeko, eta abar.

Ildo horretan, ekonomia globala deituriko horrek gaur egun duen garapenarekin, «enpresa herritarra» edo «herritar enpresarialak» deitukoak ari dira gorpuzten. Esapide horiek modan jarri dira eta EESaren nozio zabala islatu nahi dute, nozioaren europar adieran behintzat. Erabilitako terminoek bere nozioaren dimentsio politikoa iradokitzen digute. Horrenbestez, enpresek zenbait eskubide eta betebeharrak dituzte, pertsona fisikoen herritartasunaren kasuarekiko analogiaz. Konpainiek konpromiso aktiboak hartzea eta erantzukizuna izatea espero da, merkataritza-lege soilen esparruan xedaturikoaz haratago joanda. Oro har, esan ohi da ikuspegi horrek konpainien zuzendaritza eta kudeaketa modu bat artikulatu nahi duela, kontuan hartuta konpainia horiek gizarte osoarentzat interesgarri diren arloen aukera zabalean duten eragina, «ekintza sozial enpresarial» hutsera mugatu gabe nolabaiteko laguntza eta sustapen sozialeko modu bat, borondatezkoa, altruista eta kanpokoa, Bill Gates Fundazioaren antzekoa. Horrela, ikuspegi hirukoitzetik ebaluatuko da enpresaren emaitza (*performance*): ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. *Triple bottom line concept* deitu izan zaio kontzeptu horri laurogeita hamarreko hamarkadaren azken urteetan.

### **Stakeholderrak. Kapital sozialaren ardatza**

Ezin da EESaz hitz egin *stakeholder*rez hitz egin gabe. Erantzukizun generikoak eta gizarteak enpresarekin dituen harremanak *stakeholder*ekin dituzten harremanen bidez zehazten dira. Izan ere, *stakeholder* izena nahita proposatu zen *shareholder* izenaren ordez, enpresa batean akziodunen interesak baino zerbait gehiago dagoela

compañías: se renuncia al control directo de los proveedores, sustituyéndolo por formas menos rígidas de colaboración. La gestión de relaciones de todo tipo adquiere gran relevancia. Se desdibujan las fronteras entre las firmas, a medida que emergen organizaciones en red con largas cadenas de suministradores distribuidos por todo el mundo, alianzas estratégicas, acuerdos temporales, etc. En cierto modo, las empresas no tienen ya una «estructura localizada», pues trabajan conjuntamente y en interacción con otras, dentro de un marco de colaboración y competencia donde la confianza, la ética de los negocios y la gestión de relaciones son factores relevantes.

Estas mutaciones en el entorno social y económico de las empresas plantean serios desafíos para su gobierno y afectan a elementos clave del mismo: incentivos para que los distintos grupos de interés realicen inversiones específicas, sistemas de cálculo del valor total neto creado, mecanismos de reparto de riesgos y resultados, estructuras para articular la participación de los diferentes grupos de interés e instrumentos institucionales para orientar el comportamiento de los directivos y establecer sus retribuciones, etc.

En tal sentido, con el actual desarrollo de la llamada economía globalizada, toma cuerpo lo que se ha dado en denominar la «empresa ciudadana» o la «ciudadanía empresarial». Estas expresiones se han puesto de moda y, al menos en su acepción europea, intentan reflejar una noción amplia de la RSE. Los mismos términos utilizados ya sugieren su dimensión política. Existen, pues, unos derechos y obligaciones de las empresas, por analogía con el caso de la ciudadanía de las personas físicas. Se espera de las compañías compromisos activos y responsabilidad, yendo más allá de lo dispuesto en el ámbito de las puras leyes mercantiles. Por lo general, suele decirse que tal enfoque pretende articular una dirección y gestión de las compañías que tenga en cuenta la repercusión de éstas en un amplio abanico de áreas de interés para el conjunto de la sociedad, sin ceñirse a la mera «acción social empresarial»-una especie de asistencia y promoción social, de carácter voluntario, altruista y externo tipo Fundación Bill Gates-. Se habla así de evaluar el resultado (*performance*) de la empresa desde una triple perspectiva: económica, social y medioambiental. Es lo que ha dado en denominarse el *triple bottom line concept* durante los últimos años de los noventa.

### **Los stakeholders. Piedra angular del capital social**

Hoy no es posible hablar de RSE sin hablar de *stakeholder*. Las responsabilidades genéricas y las relaciones de la empresa con la sociedad se concretan en sus relaciones con los diversos *stakeholders*. De hecho, inicialmente, el nombre de *stakeholder* se propuso deliberadamente en oposición al de *shareholder*, para señalar que en una empresa hay en

adierazteko. Lau parametro erabiltzen dira enpresa baten *stakeholder* rrak identifikatzeko:

- a) *stakeholder*rekiko harremanaren kalitatea (zenbait talde funtsezkoak dira enpresak biziraun eta arrakasta izan dezan, eta beste batzuk enpresak eraginpean hartzen ditu soilik).
- b) *stakeholder*rekiko harremanaren inplikazioa enpresaren jardueran (ez da berdina inbertitzaileentzat eta komunikabideentzat).
- c) *stakeholder*rekiko harremanak enpresarentzat sortzen dituen ikas-kuntza-aukerak
- d) harremanean jokoan dagoena; interesak, legezko eskakizunak edo eskubideak, edo balio moralak (leialtasuna edo konfiantza, esaterako).

Kudeaketa estrategiko guztien funtsezko puntu bat *stakeholder*rekiko kudeaketa da, «kapital sozial edo harremanezko» bat sortzea zehazten baitu, hots, sare, arau eta konfiantza-harremanen multzoa, ekintza kolektiboaren arazoan konponketa errazte aldera. Kapital hori metatze-prozesuen bidez osatzen da, elkar lankidetzako esperientzien ondoriozkoak; hau da, bertute-zirkulu baten bidez, erakunde sozialen arteko lankidetzak eta koordinazio hobea bultzatzen duena, bultzatu egiten baititu balio konpartituak, portaeren konbergentzia, komunikazioa, elkar ulerkuntza eta izen ona autoindartzen eta gehitzen den prozesu baten esparruan. Enpresen kasuan, haien kapital soziala erakundeak eta haren partaide guztiek izandako kanpoko eta barruko harreman sozialen bidez metaturiko baliabideen (ukiezinak edo birtualak) multzo bat osatzen du, konpainiaren helburuak lortzea errazte aldera.

### **Erantzukizun sozial instrumentala**

Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta enpresa herritarraren bi ikuspegi oso desberdinak daude teoriarik eta praktikan. Alde batetik, ikuspegi estrategiko-instrumentala; beste aldetik, ikuspegi instituzional-normatiboa. Eta eztabaida sakon samarra merezi du horrek.

Eredu tradizionalan, jabeari edo akziodunei soilik ematen zizkien kontuak enpresak eta oinarritzko printzipioa zera zen, enpresa akziodunen edo kapitalaren interesei jarraiki soilik zuzendu behar zela, helburutzat mozkin ekonomikoaren maximizazioa hartuta, eta edozein ekintza da baliozkoa enpresaren balio ekonomikoa gehitzeko lagungarria bada.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, erantzukizun sozial instrumentalaren kontzeptuak EESak konpainiaren zuzendaritza estrategikorako duen erabilgarritasuna biltzen du: negozioen ingurune berrian enpresa-lehia-

juego más intereses que los de los accionistas. Para identificar a los *stakeholders* de una empresa se utilizan cuatro parámetros:

- a) la calidad de la relación con los *stakeholders* (hay grupos que son vitales para la supervivencia y el éxito de la empresa y otros que son simplemente afectados por ella).
- b) la implicación de la relación con los *stakeholders* en la actividad de la empresa (ésta no es igual para los inversores que la de los medios de comunicación).
- c) las oportunidades de aprendizaje que la relación con los *stakeholder* genera para la empresa.
- d) lo que está en juego en la relación; sean intereses, exigencias legales o derechos, o valores morales (como la lealtad o la confianza).

Un punto clave de toda gestión estratégica es la gestión con los *stakeholders*, pues determina la creación de un «capital social o relacional», entendiéndose por tal un conjunto de redes, normas y relaciones de confianza que facilita la resolución de los dilemas de la acción colectiva. Dicho capital se forma mediante procesos acumulativos, derivados de experiencias de colaboración mutua; esto es, mediante un círculo virtuoso que favorece una mejor cooperación y coordinación en las organizaciones sociales, al potenciar los valores compartidos, la convergencia de comportamientos, la comunicación, la comprensión mutua y la reputación en el marco de un proceso que se autoreforza e incrementa. En el caso de las empresas, su capital social está constituido por un conjunto de recursos (intangibles o virtuales) acumulado a través de las relaciones sociales externas e internas mantenidas por la organización y por sus partícipes, de suerte que facilite el logro de los objetivos de la compañía.

### **Responsabilidad social instrumental**

En la teoría y en la práctica existen dos visiones bien diferentes de la RSE y la empresa ciudadana. Por un lado, un enfoque estratégico-instrumental; de otra parte, una perspectiva institucional-normativa. Y ello merece una discusión con cierto detalle.

En el modelo tradicional, la empresa sólo daba cuentas ante su propietario o sus accionistas, y su principio básico era que la empresa debe ser dirigida siguiendo únicamente los intereses de los accionistas o el capital, donde el objetivo es la maximización del beneficio económico y cualquier acción es válida si ayuda a incrementar el valor económico de la empresa.

Desde otro prisma, el concepto de responsabilidad social instrumental alude a la utilidad de la RSE para la dirección estratégica de la compañía: se considera que potencia la competitividad empresarial en el

kortasuna indartzen duela uste ohi da eta helburu konbentzionalak (errentagarritasuna, hazkundera, eta abar) lortzea ahalbidetzen duela, esparru horretako beste ikuspegi batzuen bidez baino hobeto; hori dela-eta, bitarteko egokia da akziodunentzako balioa sortzeko, azken batean. Partaide edo *stakeholder* ez-akzionarioen interesak ere neurri batean kontuan hartzea, «kausadun marketing» politika bat hartzea, jarduera sozialetan eta inbertsio filantropikoetan sartzea, eta abar, lagungarriak izan daitezke helburu horretarako.

Eredu estrategiko-instrumentalaren ikuspegitik begiratuta, errentagarritasun-kontu bat da (*business case*) Enpresaren Erantzukizun Soziala, finantza-merkatuek eta, bereziki, inbertsio instituzionalak gero eta gehiago balioesten baitute. Hainbat arrazoik azaltzen dute kontzeptu horren onarpena eta bultzada:

- \* horrela jokatzeko duen enpresak legitimitate soziala eskuratzen du, sinesgarritasuna eta kapital soziala sortzen du eta konfiantza-kultura bat eratzen du balio batzuen inguruan bere kideen artean, eta kultura horrek erakundeko kide izatearen harrotasun ona sortuko du, eta, horrenbestez, lagungarri izango da interes-talde guztiak kultura erkide konpartitu baten inguruan kohesionatzeko.
- \* Inbertsioak eta finantza-baliabideak erakartzen ditu, finantza- eta burtsa-errentagarritasunaren gain eragin positiboa izango duela-koan.
- \* Ustiapen-kostuak, atzerapenak eta interes-taldeekin izandako gatazkengatik arriskuak murrizten ditu.
- \* Langile onak erakarri eta atxikitzen ditu, hots, talentua, motibazioa eta berritzeko gaitasuna dutenak, Enpresaren Erantzukizun Sozialari loturiko balioek erakarrita.
- \* *Stakeholder*ren merkataritza-bereizketa eta lotura emozionala lortzea, batez ere bezeroei dagokienez.
- \* Ukiezinezkoak sortzen eta metatzen ditu izen onaren eta merkataritzako irudi onaren bidez. Hau da, funtzionatu eta hazteko «lizentzia» bat lortu eta atxikitzea.
- \* Jarduera ekonomikoaren erregulazio publiko txikiagoa justifikatzen du, eta enpresen autoerregulazio handiagoa («*soft* erregulazioa»), konpromiso soziala eta negozioetako portaera etikoa azpimarratuta.
- \* Proiektuen finantziarioa lortzeko aukera errazten du. Esate baterako, Munduko Bankuak eta Berreraikuntza eta Garapeneko Europako Bankuak arrisku sozialak eta ingurumen-arlokoak kontuan hartzen dituzte mailegu-eskariak aztertzean.
- \* Berrikuntza eta erakundearen ikaskuntza garatzen ditu. Jakintza-sareek berrikuntza eta erakunde-ikaskuntza sustatzen dutela hartu behar da kontuan.

nuevo entorno de los negocios y permite alcanzar los objetivos convencionales (rentabilidad, crecimiento, etc.) mejor que otros enfoques en tal ámbito; por ello, en último término, constituye un buen medio para generar valor para los accionistas. Tener presentes en cierta medida los intereses de los partícipes o *stakeholders* no accionariales, adoptar una política de «marketing con causa», involucrarse en actividades sociales e inversiones filantrópicas, etc., pueden contribuir a tal fin, al menos a largo plazo.

Desde la perspectiva del modelo estratégico-instrumental, la RSE viene a ser una cuestión de rentabilidad (*business case*), cada vez más apreciada por los mercados financieros y, en especial, por los inversores institucionales. Se adopta y se ve impulsada porque:

- \* la empresa que actúa de este modo adquiere legitimidad social, genera credibilidad y capital social, y configura en sus miembros una cultura de confianza en torno a valores, cultura que generará un sano orgullo de pertenencia a la organización y, por tanto, ayudará a cohesionar a todos los grupos de interés en torno a una cultura común compartida.
- \* Atrae inversores y recursos financieros, gracias a su esperado efecto positivo sobre la rentabilidad financiera y bursátil.
- \* Reduce costes de explotación, retrasos y riesgos por conflictos con los grupos de interés.
- \* Capta y retiene buenos empleados, con talento, motivación y capacidad para innovar, atraídos por los valores asociados con la RSE.
- \* Logra la diferenciación comercial y la vinculación en términos emocionales de los diversos *stakeholders*, sobre todo de los clientes.
- \* Genera y acumula intangibles a través de la reputación y la buena imagen comercial. Es decir, consigue y mantiene una «licencia» para funcionar y crecer.
- \* Justifica una menor regulación pública de las actividades económicas y una mayor autorregulación de las empresas («regulación *soft*»), al insistir en el compromiso social y el comportamiento ético de los negocios.
- \* Facilita el acceso a la financiación de proyectos. Por ejemplo, el Banco Mundial y el Banco Europeo para la Reconstrucción y el Desarrollo tienen en cuenta los riesgos sociales y medioambientales al analizar las peticiones de préstamo.
- \* Desarrolla la innovación y el aprendizaje de la organización. Debe tenerse presente que las redes de conocimientos fomentan la innovación y el aprendizaje organizacional.

## Erantzukizun sozial instrumentala eta erantzukizun sozial normatiboa

Bigarren ikuspegian, erantzukizun soziala proposamen preskriptibo edo normatibo gisa bilduta dago, hots, «izan behar lukeena»: uste da parte-hartzaileen talde edo alderdi interesdun bakoitzak kontsiderazio hobea merezi duela berez ordezkatzeko duenarengatik, eta ez soilik beste talderen batentzako bitarteko baliagarri izateko duen gaitasunarengatik. Kant parafraseatuz, enpresan inplikaturiko pertsonak (*stakeholderrak*) duintasuna dute eta ez prezioa, eta helburu gisa tratatu behar dira eta inoiz ere ez bitarteko gisa, ez dira instrumentalizatu behar interes-taldeen arteko talde bakarraren mesedetan. Hau da, *stakeholder* bakoitzaren interesak legitimoak dira eta berezko balioa dute. Horrenbestez, honako hau eskatzen du ikuspegi horrek:

- a) ikusmolde bat: enpresa lankidetzako eta legitimitate sozialeko gune gisa ulertzea. Ildo horretan, *stakeholder* enpresa-gobernuko ereduarekiko konpromisoa –hau da, gizartearenganako erantzukizunean oinarritua– eta legitimitate publikoa lortzea balio batzuetan eta erakundearen kultura batean oinarritzen dira, parte-hartzaileen arteko lankidetzarantz bideraturikoak, haien arteko kohesiorantz eta sozialki konpartituriko arau edo usteekiko uztartzerantz
- b) gobernu korporatibo inklusiboa –ez-eskluyentea–, enpresaren zuzendaritzako eta kudeaketako nolabaiteko parte-hartzearen inguruan kudeaturikoa
- c) epe luzerako aberastasunen guztizko sorkuntza garbia, alderdi interesdun guztien ikuspegitik landurikoa eta denboran iraunkorra, ingurumen-kapital orokorra eta erakundearen kapital fisiko, finantzario eta intelektuala zainduz; eta

**Balio eta praktika unibertsalizagarrietan oinarrituta, enpresen ezinbesteko helburu bat kokatuta dauden ingurunean aberastasuna sortzea da. Mozkinak lortzea eta edozein motatako kostuak (ekonomikoak, ingurumen-arlokoak, sozialak eta abar) minimizatzea enpresa sozialki arduratsu baten funtsezko zeregina da**

